XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO SAILA

2897

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 15ekoa, Herrizaingoko sailburuarena. Agindu honen bidez onartu egiten dira jolas aretoen eta berrerospeneko jolas-makinen ustiapenean publizitate– edo sustapen-helburua duten ausazko konbinazioak egiteko erantzukizunpeko adierazpen-ereduak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, gure ordenamendu juridikoan sartu da, eta, horren ondorioz, zerbitzu-jardueretara sarbidea izateko eta jarduera horietan aritzeko araudi osoa barne-merkatuko oinarrizko printzipioetara egokitu beharra dago.

Agindu hori betetzeko, EAEn apirilaren 23ko 7/2012 Legea eman zen. Lege horrek hainbat lege aldatu zituen, hain zuzen ere Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako barne-merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitu zitezen.

Aldatutako legeen artean, azaroaren 8ko 4/1991 Legea dago, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzeko dena. Lege horretatik, ausazko konbinazioei dagokien aldez aurretiko administrazio-baimena izan beharra kendu da –lege horren 5.2 eta 3.3.e) artikuluetan ezarrita zegoen betebehar hori–. Era berean, administrazio-baimenak kendu egin dira; baimen horiek beharrezkoak ziren AR motako edo berrerospeneko jolas-makinak eta horrelako makinak dituzten jolas-aretoak ustiatzeko, eta 4/1991 Legearen 13.3.a) eta 15.2 artikuluetan araututa zeuden, hurrenez hurren, lege bereko 5.3 eta 3.3 artikuluekin ezarritakoarekin loturik. Nolanahi ere, aldez aurretik erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharra ezarri da; joko-arloan eskumena duen organoari zuzendu beharko zaio adierazpen hori.

Horrenbestez, agindu honen bidez, ereduak ezartzen dira, zehazki, joko-jardueran aritzen direnek jarduera horren berri eman diezaioten joko-arloan eskumena duen zuzendaritzari.

Hori horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

1.– Agindu honen helburua da erantzukizunpeko adierazpenak onartzea, hain zuzen ere ustiapena edo jarduera hasi aurretik egin beharrekoak eta honako hauek aurkeztu beharrekoak: publizitate– edo sustapen-helburua duten ausazko konbinaketen sustatzaileek; AR motako edo berrerospeneko jolas-makinen ustiatzaileek; eta horrelako makinak dituzten jolas-aretoen ustiatzaileek.

2.– Jarduera hasi aurretik erantzukizunpeko adierazpenak egin beharko dira, agindu honen eranskinean jasotako ereduei jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 15a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

Jolas aretoak ustiatzeko erantzukizunpeko adierazpena

PROZEDURA	AGIRIA
JOLAS-ARETOAK USTIATU	ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adierazpen hau egiten da, EAEn berrerospeneko jolas-makinak edo «AR» motako makinak ustiatu aurretik, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 13.3 artikulua betetzeko

JOLAS-ARETOAREN ENPRESAREN DATUAK

Erakunde ustiatzailea	IFK
Izen-abizenak	**IFZ**
Helbidea (kalea, zk., PK., herria eta lurraldea	
Telefonoa	**Telefono mugikorra**

ORDEZKARIAREN DATUAK

Izen-abizenak	IFZ
Helbidea (kalea, zk., PK., herria eta lurraldea)	
Telefonoa	**Telefono mugikorra**

ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK

Izen komertziala	
Helbidea (kalea, zk., PK., herria eta lurraldea)	

LOKALAREN EZAUGARRIAK	
Azalera	
Jolaserako den azalera	
Makina-kopurua	
Makinen banaketa	
Zerbitzuak	

JAKINARAZPENA	
☐ Elektronikoa	☐ Postaz
Postaz bidaltzeko (bakarrik postaren bidez jakinarazteko) – Posta-helbidea ((kalea, zk., pisua, PK., udalerria, herria eta lurraldea)	

Posta elektronikoaren bidez jakinarazteko (posta elektronikoaren helbidea)

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adierazpen hau sinatzen duenak honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

– Adierazpenenean emandako datuak benetakoak direla.

– Baldintzak betetzen dituela, urriaren 4ko 380/1994 Dekretuak ezarritakoak (horren bidez Joko Aretoen eta Jolas Aretoen Erregelamendua onartzen da, abenduaren 26ko 277/2000 Dekretuak eta otsailaren 28ko 25/2012 Dekretuak aldatua), eta egiaztatzen duen dokumentazioa baduela.

– AR motako makinak edo berrerospeneko makinak baino ez dituela ustiatuko, Jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 15.1 artikulua betetzeko.

– Jarduera indarrean dagoen bitartean baldintza guztiak beteko dituela.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Joko eta Ikuskizunak izeneko fitxategian sartuko direla, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betetzeko. Fitxategi hori Herrizaingo sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduak arautzen du, baita Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako «Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia» erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak ere. Fitxategi horren helburua da Autonomi Erkidegoan Joko jarduerak kudeatzea. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri; izan ere, Agentzia horrek ditu datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

……., ……(e)ko…….ren……..a

Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura.

Adierazpen honek ondorioak izango ditu aurkezten den egunetik aurrera, nahiz eta Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak konprobatu, kontrolatu eta ikuskatu dezakeen.

HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIO, JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARITZA.

Ausazko konbinazioak egiteko erantzukizunpeko adierazpena

PROZEDURA	AGIRIA
IRAGARTZEKO EDO SUSTATZEKO AUSAZKO KONBINAZIOA	ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adierazpen hau egiten da, EAEn ausazko konbinazioak egin aurretik, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 5.5 artikulua betetzeko

INTERESDUNAREN / ESKATZAILEAREN DATUAK

Erakunde antolatzailea	IFK
Izen-abizenak	**IFZ**
Helbidea	
Telefonoa	**Telefono mugikorra**

ORDEZKARIAREN DATUAK

Izen-abizenak	IFZ
Helbidea	
Telefonoa	**Telefono mugikorra**

AUSAZKO KONBINAZIOAREN DATUAK

SUSTAPEN-ALDIA	Noiz hasi	-------/------/----------	Noiz amaitu	-------/-------/----------

Sustapenean nola parte hartu deskribatu

Sustapenaren lurralde eremua	Zozketa noiz, non eta zer ordutan

Zozketa nola egingo da eta notarioa egotekotan, nor den zehaztu

Sarien zerrenda	Sari bakoitzaren balioa

Sari guztien balioa (BEZik gabe)	Sariak noiz eta non emango dira

Jakinarazpena	
☐ Elektronikoa	☐ Postaz

Postaz bidaltzeko (bakarrik postaren bidez jakinarazteko) – Posta- helbidea ((kalea, zk., pisua, PK, Udalerria, herria eta Lurraldea)

Posta elektronikoaren bidez jakinarazteko (posta elektronikoaren helbidea)

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adierazpen hau sinatzen duenak honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

– Adierazpenenean emandako datuak benetakoak direla.

– Baldintzak betetzen dituela, Herrizaingo sailburuaren 1991ko irailaren 2ko Aginduak ezarritakoak eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa baduela.

– Idazki honetan agertzen den makina horretarako baimendutako lokaletan baino ez dela jarriko.

– Jarduerara indarrean dagoen bitartean baldintza guztiak beteko dituela.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Joko eta Ikuskizunak izeneko fitxategian sartuko direla, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betetzeko. Fitxategi hori Herrizaingo sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduak arautzen du, baita Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako «Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia» erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak ere. Fitxategi horren helburua da Autonomi Erkidegoan Joko jarduerak kudeatzea. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri; izan ere, Agentzia horrek ditu datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

……., ……(e)ko……..ren……..a

Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura.

Adierazpen honek ondorioak izango ditu aurkezten den egunetik aurrera, nahiz eta Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak konprobatu, kontrolatu eta ikuskatu dezakeen.

HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIO, JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARITZA.

Berrerospeneko jolas-makinak (AR) ustiatzeko erantzukizunpeko adierazpena

PROZEDURA	AGIRIA
BERREROSPENEKO JOLAS-MAKINAK (AR) USTIATU	ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adierazpen hau egiten da, EAEn berrerospeneko jolas-makinak edo “AR” motako makinak ustiatu aurretik, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 13.3 artikulua betetzeko

ENPRESA OPERATZAILEAREN DATUAK

Erakunde ustiatzailea	IFK
Izen-abizenak	**IFZ**
Helbidea (kalea, zk., PK, herria eta Lurraldea	
Telefonoa	**Telefono mugikorra**

ORDEZKARIAREN DATUAK

Izen-abizenak	IFZ
Helbidea (kalea, zk., PK, herria eta Lurraldea)	
Telefonoa	**Telefono mugikorra**

MAKINAREN DATUAK

Izen komertziala			
Fabrikatzailea		**Fabrikatu den urtea eta serie-zenbakia**	
Makinaren ezaugarri teknikoen deskripzioa			
Jokoaren deskripzioa			
Sariak eta beraien ezaugarriak: balioa eta lortzeko baldintzak			
Establezimendua			
☐ **Ostalaritza**		☐ **Jolas aretoa**	
Izena			

SARIAREN EDO SARIEN BALIOA DIRUTAN (BEZik GABE)	
Partida bakoitzak zenbat balio du	
Jakinarazpena	
☐ Elektronikoa	☐ Postaz
Postaz bidaltzeko (bakarrik postaren bidez jakinarazteko) – Posta- helbidea (kalea, zk., pisua, PK, Udalerria, herria eta Lurraldea)	
Posta elektronikoaren bidez jakinarazteko (posta elektronikoaren helbidea)	

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adierazpen hau sinatzen duenak honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

– Adierazpenenean emandako datuak benetakoak direla.

– Baldintzak betetzen dituela, Azaroaren 17ko 600/2009 Dekretuak ezarritakoak (Horren bidez otsailaren 28ko 25/2012 Dekretuak aldatzen duen Joko eta Marinen Erregelamendua onartzen da), eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa baduela.

– Idazki honetan agertzen den makina horretarako baimendutako lokaletan baino ez dela jarriko.

– Jarduerara indarrean dagoen bitartean baldintza guztiak beteko dituela.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak Joko eta Ikuskizunak izeneko fitxategian sartuko direla, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betetzeko. Fitxategi hori Herrizaingo sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduak arautzen du, baita Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako «Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia» erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak ere. Fitxategi horren helburua da Autonomi Erkidegoan Joko jarduerak kudeatzea. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri; izan ere, Agentzia horrek ditu datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzara jotzea (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

……., ……(e)ko……..ren……..a

Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura.

Adierazpen honek ondorioak izango ditu aurkezten den egunetik aurrera, nahiz eta Hauteskunde Administrazio, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak konprobatu, kontrolatu eta ikuskatu dezakeen.

HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIO, JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARITZA.